

# JESUS ETA NAINGO ALARGUNA

1

Nor osatuko hor dabil beti  
Profeta Nazaretarra,  
berez jatorko errukia ta  
nunahi on egin beharra.  
Batez ere, bat gaixoa bada,  
elbarria edo zaharra,  
bihotz erdira sartzen jakola  
minez diranen negarra.

3

“Geldi guztiok ta jatsi kutxa,  
ama, ez egin negarrik!  
Sinistu eizu, Jainkoak badau  
hau biztuteko indarrik.  
Zu, gazte, jagi ta jarri zutik”  
hauxe esanaz bakarrik:  
hil-barria zan gaztea horra  
irribarrez ta itzarrik.

5

Jesusek Bera Mesias zanik  
ez eukan zetan autortu,  
nahikoa jakon lehendik esana  
eginaz, fedea sortu:  
Elbarri, gaixo osatu eta  
negar-malkoak lehortu;  
dotrina hutsak hutsak dira ta  
berrin *agortu*

2

Herririk herri, auzorik auzo  
ebilen egun batean,  
ze ikuskizun penagarria  
Nain herriko atean:  
Alargun baten seme bakarra  
eroaien atautean;  
Jesusen bihotz errukitsuak  
ze pena, hau ikustean!

4

“Profeta haundi miragarria  
Jaunak bialdu deuskuna,  
Jesusengan gaur agertu deusku  
errukizko maitasuna”.  
Ama-semeak besarkatuta  
jendearen poztasuna!  
“Gaur bisitatu ditu Jainkoak  
semea ta alarguna”.

6

Jesusen Aita zelangoa dan  
agertu behar da artez,  
txikien alde gogor jokatz,  
nahiz izan nobere kaltez.  
Gaixo ta pobre egiz maitatuz  
Aitatxo Beraren partez,  
Jesusek Aita agertu deusku  
egintza onen bitartez.